

**2021-2023 TARTERAKO UNIBERTSITATE SISTEMA ESPAINIARRA
BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN BIGARREN DEIALDIA,
EUROPAR BATASUNAK-NEXT GENERATION EU-K FINANTZATUTA
(UNIBERTSITATEKO IRAKASLE FUNTZIONARIO ETA
KONTRATATUAK BIRKUALIFIKATZEKO)**

***Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren
behin-betiko zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

**2021-2023 TARTERAKO UNIBERTSITATE SISTEMA ESPAINIARRA BIRKUALIFIKATZEKO
LAGUNTZEN BIGARREN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK-NEXT GENERATION EU-K
FINANTZATUTA
(UNIBERTSITATEKO IRAKASLE FUNTZIONARIO ETA KONTRATATUAK
BIRKUALIFIKATZEKO)**

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko uztailaren 5ean

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA **IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

KODEA	NAN	ZUZENTZEKO
RECUALI 22-01	14264049R	ONARTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-02	16056313J	ONARTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-03	16067505G	ONARTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-04	44162351M	BAZTERTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-05	72682550c	ONARTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-06	44344236Y	ONARTUTAKO ESKAERA
RECUALI 22-07	45678410L	ONARTUTAKO ESKAERA